

## Kontsumitzaile burutsuak

Eskola kontsumo tailerrak San Joan eta Fleming ikastetxeetan ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-11-22 ▶ III. urtea ▶ 743. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Larrañagari ez diotela heriotz zigorra aplikatuko agindu du Filipinak

**ALEGIA** ▶ Gloria Macapagal Arroyo Filipinetako presidentek egin ditu adierazpenok; horren harira, itxaropentsu dira senitartekoak ▶ 5

GAZTELU ▶

Ramon Otegi, Irungo krosean irabazle

«Harra ateratzeko beharra nuen» ▶ 6

## Giro polita eta maila ona herri kirolen jaialdi erraldoian, Beotibarren

**TOLOSA** ▶ Inaxio Perurena leitzarrak 280 kiloko harria jasotzea lortu zuen; festa giroan amaitu da Tolosako Babarrunaren Astea ▶ 2

JON URBE / ARGAZKI PRESS



LEITZA ▶

Julio Soto, Xalto bertso sariketako lehen sailkatua

Torrean egin zuten saioa larunbatean; bertakoak ere lehian ▶ 7

Larunbateko saioa. J. ASTIBIA



BABARRUNAREN ASTEA ▶

# Perurenaren erakustaldia, herri kirolen jaialdi erraldoian

Igandean eman zioten amaiera Babarrunaren Asteari; askotariko ekitaldiak izan ziren, Artzain Zakur Txapelketa eta Lehiaketa Gastronomikoa, esaterako

NOELIA LATABURU

Babarrun Asteak utzitako ajearekin jaiki zen atzo herria. Izan ere, askotariko ekitaldiak antolatatu zituzten herenegun gure urre beltzaren omenez. Guztiek ere jarraipen handia izan zuten herritarren aldetik, bai eta bisitarien aldetik ere. Kirola eta gastronomia uztarturik eta eguraldia lagun, festa giro bikaina izan da, beraz, asteburu guztian.

Beotibarrek herri kirolen jaialdia hartu zuen goizean. Harri-jasotzearen saioan Inaxio Perurena izan zen nagusi, jasoaldi garbi eta borobil baten ondorioz. Leitzako gazteak ez zuen hutsik egin, bada, eta 280 kiloko errektangularra bizkarrean berdintzea lortu zuen. Bere aita izan zuen alboan berotzeko. Ondoren, harria aurrean jarri, gerrira ekarri, buelta eman, bi kolpe eman eta berdindu egin zuen. Hau guztia betetzeko 13 segundo nahiko izan zituen leitzarrak. Beotibarreko harmailak bete zituzten zaletuak oso pozik azaldu ziren harri-jasotzailearen erakustaldiarekin. Protagonistak berak ere ezin zuen bere poza ezkutatatu. Dena den, hasi aurretik bere kezkak zituela adierazi zuen; izan ere, «hutsigete bat nahikoa izaten da harria jaso gabe uzteko». Ez zen, ordea, horrelakorik jazo, eta «gustura» geratu zen gaztea eginiko em-



Harri-jasotzea. Inaxio Perurenak 280 kiloko harria jasotzea lortu zuen. JON URBE / ARGAZKI PRESS

naldiarekin. Hurrengo erronkan pentsatzen du dagoeneko, bost kilo gehitzea, hain zuzen ere. Eguna, haatik, oraindik zehaztu gabe dago.

## Beste probetan ere, fin

Beste probetan ere, aizkorarena eta abiadurarena, partaideak fin aritu ziren; Mindegia eta Irigoien nagusitu ziren, hurrenez hurren. Enbor bat moztea izan zen herenegun bete beha-



Abiadura. Aimar Irigoien izan zen azkarrena. JON URBE / ARGAZKI PRESS



Aizkora. Mindegia aurkari guztiak garaitu zituen. JON URBE / ARGAZKI PRESS

## Artzain zakur onena

Herenegun goizean, Iurramendiko belazetan, VIII. Artzain Zakur Txapelketa egin zuten. Bertan sei partaide lehiatu ziren: Ion Zuazo (Nardarrate, Araba) Orgin txakur-rekin (Euskadiko Txapelduna), Antonio Alustiza (Areso) Argi-rekin (Nafarroako Txapelduna), Jabier Zubiarru (Mutriku) Txiki-rekin (Gipuzkoako txapeldun ordea), Ramon Larrañaga (Azkoitia) Lista txakur-rekin (Gipuzkoako txapelduna), Kepa Ardanza (Abadiño, Bizkaia) Txiki-rekin (Euskadiko eta Bizkaiko txapeldunordea), eta Xabier Urien (Abadiño) Txiki-rekin (Bizkaiko laugarrena).

Irabazleak honakoak izan ziren: Lehen saria Xabier Urienek eskuratu zuen; bigarrena Kepa Ardantzarentzat izan zen eta hirugarrena Jabier Zubiarrarentzat.

rrako lana aizkorari dagokionez, 45 ontzako eta kana-erdi-koaren artean zegoen enbor bat. Multzo ezberdinak egin zituzten eta gazteekin ere osatu zuten beren saioa. Hemen, Rekondo leitzarrak irabazi zuen. Helduetan, berriz, Senosiain I. eta Txapartegi sailkatu ziren Mindegia-aren atzetik. Garaipe honen hiru egunetan janzen duen bigarren txapela du Mindegia.

Abiaduraren atalean, Aimar Irigoien izan zen azkarrena harria jasotzen. Errezildarra hiru probetatik onena izan zen bitan, eta hirugarrengoa bigarren geratu zen. Hasteko, 100 kiloko zilindroari 20 jasoaldi eman behar zizkien, eta Ostolazak segun go bat lehenago amaitu zuen. Aimarren aurretik, 100 kiloko kubikoaren hamar jasoaldi egin eta 100 kiloko bola beste hamabost bider altzatzen, ordea, Aimar Irigoienek ez zuen areririk izan, eta bera nagusitu zen bietan ere.

Honenbestez, amaitu zen herri kirolen festa. Ez, ordea, eguneko. Izan ere, ondoren Ferialekua bilakatu zen festa gunea, bertan egin baitzuten XIX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa, Gure Kaiola elkarteak antolatuta. 20 bikotek hartu zuten parte, eta aurreko eguneko babarrun irabazlea maneatu zuten. Ondoren, herri bazkaria egin zuten. 550 lagun inguru elkartu zen, eta asteburuko protagonista izan ziren babarrunak dastatzeko parada izan zuten.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO  
HITZAN

salgai

Bertsolari Txapelketa  
Nagusiko finalerako:

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak



hitza

ERLIJIOA ▶

**Santa Maria parrokiako sendotzak**

Santa Maria parrokiak deialdia luzatu du bertan izango diren sendotzetan parte hartzeko. Interesa dutenek ostiral honetan, hilaren 25a, 20:00etan parroki etxera (Santa Maria kalea, 10 bis) ager daitezke.

GIZARTEA ▶

**Ez ohiko bilkura gaur udaletxeko areto nagusian**

Gaur, 19:00etan, ez ohiko udalbatzarra egingo dute udaletxeko areto nagusian. Bertan jorratuko den gaia hilaren 25a, Emakumeengana-ko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da.

SASKIBALOA ▶

**Aralar taldearen garaipena, Lasalleren aurka**

Tolosa Aralar taldeak garaipea eskuratu zuen iragan larunbatean Lasalle taldearen aurka. Puntu bakarreko aldea lortu zuen eta 68 eta 67ko markagailuarekin amaitu zen norgehiagoka. Beheko mailak ere aritu ziren jolasean: kadeteek 71 eta 34 irabazi zuten Lasalleren aurka.

GIZARTEA ▶

**Igarondok bi erosketa-txeke zozketatzen ditu**

Igarondo Tolosako Merkatarien Elkartek promozio berria jarri du abian, eta honen helburua elkarteko denden bezeroen artean 600 eta 300 euroko erosketa-txekeak zozketatzea izango da. Abenduaren 17a bitartean, elkarteko kide diren negozioak bere bezeroei txartel bana emango diete erosketa egiten duen bakoitzean, eta bezeroak bere izena, herria eta telefona idatziko ditu txartelan eta denda bertan aurkituko duen postontzian utzi. Sarien zozketa abenduaren 21ean egingo dute, eta bi irabazleek txekua aukeratzatzen dituzten dendetan erabili ahal izango dute, urtarrilaren 5a baino lehen.

ARETO FUTBOLA ▶

**Laskorain, esku hutsik etxera**

4 eta 2 galdu zuten Elorrio taldearen aurka, «partida ona» burutu arren

ERREDAKZIOA

Bigarren jardunaldiz Laskorainek ezin izan zuen punturik eskuratu joan den larunbatean. Ikastolakoek sailkapeneko lehen bostekoan kokaturik dagoen Elorrioko talde bizkaitarrari egin zioten bisita, eta baleko partida osatu arren, esku hutsik itzuli behar izan zuten Tolosara Gipuzkoa ezker-esku bi zeharkatzen duen eta bihur-gunez josirik dagoen errepidean zehar.

Horitxoek neurketa «onargarria» jokatu zutela ukazina da. Lehen instantetik hasita joko serioa erakutsi zuten, bai defentsan eta bai erasoan; eta aurreko asteko partidari ez bezela, oraingoan ez zioten are-rioiari inolako oparirik edo erratzasunik eman.

Taldeko partaideen esanetan, ordea, arazoa ondokoa izan zen: futboleko gauzak ondo eginagatik ere ez dagoela ezer bermatuta, aurkariak ere jokatzeko duela eta egiten dituela bere merezimendu eta ahaleginak. Larunbatean horixe gertatu zitzaizkien horitxoei, Elorrioko sendo eta gogor batekin egin zutela topo, fisikoki oso ahaltsua eta lehia orekatu baten ondoren, puntuak etxekoan zakura erori zirela.

Gol aukera askoko partida izan zen, aurrez uste zena baino irekiagoa, eta bi atezainak izan ziren, dudarik gabe, arratsaldeko onenak. Domentxe armiarinak bere ohiko sarea josi zuten ate laskoraindarrean, taldekideak aho zabalik utziz

bere geldituekin, baina Elorrioko atezain burusoila ere ez zen atzean geratu ikastolako-etsipenerako.

Horrelako neurketetan garaipea eta porrotaren arteko muga oso hestua izan ohi da, eta mugaren alde batean edo bestean gelditu fiabardura txiki-eki eragiten dute. Larunbatean, adibidez, lehen gola bizkaitarrek egin zuten atsedean atarian, eta markagailuan beti izango zirean atzetik. Horitxoek hain garrantzitsuak izan ohi diren bi jaurtiketa izan zituzten hamar metrotatik, baina ez zuten asmatu eta partidako azken minutu zoroan, 3 eta 2-koarekin, tolosarren berdinketa esku-eskura egon bazen ere hamar segundo falta zirela Elorrioko taldeak sartu zuen laugarrena.

Aipatu Laskorainen bi golak Barriola injenieriari sinatu zituela. «bere kalitatearen eta garaipe gnrinaren beste adibide bat eskainiz», baina gainontzeko taldekideek punteria kamutsa erakutsi zuten. Barriolarekin batera Egizabal entrenatzailea eta Domentxe, Telletxea, Yustos, Saldias, Amatriain, Alonso, Gil, Calixto, Zubillaga eta Urko jokalariek izan ziren Elorrioren.

Asteburu beltza izan da ere beste taldeentzat. Jorge Alonso Mourinhoren beheko taldeak galdu egin zuen Usabalen 5-6, eta Xabier Muruarenak buru makur itzuli behar izan zuen etxeruntz 4-3 erori ostean. Datorren jardunaldian eman beharko diote buelta egoerari.

GIZARTEA ▶

**Bi solairu erre dira Alde Zaharreko etxe batean**

Ezbeharraren herenegun arratsaldean jazo zen; suhiltzaileak 4 orduz aritu ziren lanean



Eraikuntzaren azken solairuak izan dira kaltetuak. NOELIA LATABURU

N. LATABURU

Tolosako Alde Zaharrean kokatzen den Korreo kaleko 21. zenbakian ezbeharraren izan zen iragan igandean. Lau solairu dituen etxebizitza honetan sua piztu zen, eta azken biak kaltetuak suertatu ziren. Sua arratsaldeko lehen orduan piztu zen, eta suhiltzaileak lau orduz aritu behar izan zuten lanean. Bizilagunek jakitera eman dutenaren arabera, «sua hirugarren pisuan hasi zen, bertakoek tximinia piztu zuten». Sua bat-batean barreiatu zen gainontzeko so-

lauruetara. Bigarren pisukoek ere kalteren bat edo beste izan dute, baina guztietan okerraren geratu direnak azken bi solairuak izan dira. Oraingo bizilagunek ezinezkoa izango dute bertara igarotzea eta, Udalarekin hitz egin ostean, oraingo Tolosako Oria hotelen artatuko dituzte. Bizilagunak «oso larrituta eta triste» azaldu dira gertakariaren aurrean.

Eskaratze honetako nahiz ingurukoetako bizilagunek kalera atera behar izan zuten, kea zela eta. Hala ere, hauetan ez zen inongo arazorik izan.

HEZKUNTZA ▶

**Eguberrietako ludoteka antolatu du Galtzaundik**

ERREDAKZIOA

Udalekuek udan izan zuten arrakasta ikusita, Gabonetarako Galtzaundik ludoteka antolatzea erabaki du. Umeei zuzenduriko ludoteka abendu-

ren 26tik urtarrilaren 6ra bitarte egingo dute, astelehentik ostiralera, 09:00etatik 13:30era. Izen-ematea Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan egin daiteke, abenduaren 19ra arte.

iragarki laburrak ▶

<p>Kale Nagusia, 13 <b>VILLABONA</b> Tel.: 943 69 68 56 mug.:616 93 17 88</p> <p><b>ETXESAGASTI</b></p>	<p><b>Andoain.</b> Berrituriko etxebizitza salgai. 100 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Zoragarria. Garajearekin. Etxesagasti 943 69 68 56.</p> <p><b>Tolosa.</b> Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Oso eguzkitsua. Ezin hobea. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p><b>Tolosa.</b> 96 m2ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komun 1. Trasteleku eta</p>	<p>garajearekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p><b>Tolosa.</b> Bizitzeko moldatutako bulegoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p><b>Tolosaldea.</b> Baserrira salgai. Interesatuentzat informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p><b>Legorreta.</b> Hiru logela dituen ebeka berritzeko. Igogailua du. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p>	<p><b>Lizartza.</b> Baserrira berritua, lursailaekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p><b>Amezketza.</b> Elkarri abixikitako ebeka berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.</p> <p><b>Eskaera handia</b> dela eta, etxebizitza, bakarkako ebeka, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Tolosaldean.</p>
---	---	---	--

HEZKUNTZA ▶

# Kontsumitzaile burutsuak

Villabonako Fleming eskolan eta Alegiko San Joan eskolan kontsumo tailerrak burutzen ari dira egunotan

IMANOL GARCIA

Kontsumo tailer mugikorren bisita dute egunotan eskualdeko bi ikastetxeek: Villabonako Fleming eskolak eta Alegiako San Joan eskolak. «Gaurko gizaritean garrantzi handiko gaia da kontsumoa», azaldu dio HITZARI Gloria Sarasa Fleming eskolako ikasketa-buruak. «Gainera, kontuan izan behar da laster datoztela Gabonak eta telebistan iragarki asko ikusten dituztela haurrek. Gurasoek batzuetan ez dakite zer erosi».

Kontsumoaren gaia hain garrantzizkoa dela ikusirik, «ikusten dugu haurrek kezka egin behar direla kontsumoan, ikasi behar dutela kritikoak izaten», zehazten du Sarasak. Tailer ugari egingo dituzte bai Flemingean (aste guztian izango dira) eta San Joanen (atzo hasi eta bihar arte). Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak antolatutako tailerrak dira eta eskola bakoitzean pare bat begirale dautte tailerrak ematen.

Lehen Hezkuntzako haurrek hartzen ari dira parte tailer hauetan. Esan bezala, ugariak dira gaiak: jolasa eta jostailuak, supermerkatua eta erosketak, elikagaien etiketak, lehenengaien eraldaketa, elikagaien analisi konparatiboak, ura eta argindarra, ehungintza eta segurtasuna.

«Haurrek kontsumitzaile burutsuak izaten ikastea da tailer hauen helburua», azaldu du Ainhoa Becerra begiraleak. «Pentsatzea zer ari garen eta zergatik ari garen erosten. Gero norberak erabakiko du zer egiten duen bere diruarekin, baina ahal den neurrian

begiratzuz ez bakarrik zer ari den erosten, baita produktu hori egiteko egindako guztia kontuan izatea ere». Enrike Arribas begiraleak gaineratu duenez, produktu guztiaren prozesua ezagutarazten dute: «Produktua nondik lortzen dugun, nola eraldatzen dugun, zer hondakin sortzen dituen eta horiek zer eragin duten ingurumenean».

Supermerkatua eta erosketako tailerren, esaterako, lehenabizi ondo elikatzea zer den erakutsiko dute, eta gero erosketak batzuk egiten dituzte. Gero bueltak ondo eman diren begiratzeko, tiketa gordetzea beharrezkoa dela erreklamazioa egiteko... azaltzen diete haurrei. Beste tailer batean, jolasak eta jostailuak izena duena, puzzle handi bat egiten da eta bereizten da zer den jolasa eta zer den jostailua, azalduz jolasteko beti ez dela jostailu bat izan behar, lagunekin ere aritu daitekeela jolasean. Bestalde, taldean jolastea dibertigarriagoa dela erakusten dute begiraleek.

## Gurasoak ere bai

Tailerretan egindako lanak jarraitu izatea beharrezkoa ikusten dute begiraleek. Horrela, gurasoen parte-hartzea bermatzeko hitzaldiak antolatu dituzte bi ikastetxeetan. «Gurasoei azalduko diegu eskolan egiten ari garen lana, zeintzuk diren helburuak, zer lantzen den, zer ikasi behar duten...», dio Becerrak. Fleming eskolako gurasoek Arratzainen izango dute hitzordua, gaur, 16:15ean. Alegiko San Joan eskolan gurasoek, berriz, bihar, 14:30ean.



Alegiako San Joan eskolan jolasei buruzko tailerra egin zuten atzo. NEREA URBIZU



Villabonako Fleming eskolan lehenengaien eraldaketa tailerra landu zuten atzo. I. GARCIA



Supermerkatuaren tailerren, elikadura osasuntsu bati buruzko azalpenak ematen. Fleming-en. I. GARCIA

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Etxeko langilea.** Goizez, neska eskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 667 45 51 76 ([arratsaldez](mailto:arratsaldez)).

### SALGAI

**Autoa.** Citroen Xara 1,9 diesela salgai. 2001. urtekoa. 78.500 kilometro. egoera onean eta beti garajejan egona. Interesatuak deitu 653 74 05 11 zenbakira.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege berriaren arabera, lantegiaren ezin izango da erre. Halaber, zenbait tabernetan erretzaileentzat egokituriko guneak jarri beharko dituzte. Zer iruditzen zaizue? Gogorregia al da legea? Edota are gogorragoa izan beharko luke? Zergatik?

ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Larrañagari ez diotela heriotz zigorra aplikatuko agindu du Filipinetako presidentek

Gloria Macapagal Arroyo presidentearen adierazpenak entzun ondoren, itxaropentsu agertu dira Larrañagaren senitartekoak eta baita politikariak ere



Pako Larrañaga preso. HITZA

## NEREA URBIZU

Pako Larrañagaren auziaren inguruko azken berria ona dela esan beharra da. Filipinetako presidente Gloria Macapagal Arroyok adierazi duenez, berak kargua duen bitar-

tean ez da Pakoren kontrako auzirik izango. Hortaz, heriotz zigorra ez diote aplikatuko 2010. urtera arte behintzat.

Adierazpen horien harira, eta egoerak hobera egingo duelakoan, itxaropentsu agertu dira bai politikoak bai preso-

aren sendia ere. «Bere askatasuna lortzeko beste pauso bat izan daiteke», esan du Margarita Gonzalezek, epaituaren ama.

Aipatzekoa da kasu honen inguruan Gloria Macapagalen adierazpenak estrainezko

## KRONOLOGIA ▶

Pako Larrañagaren auziko azken gertakariak, aurtun:

**Martxoak 3.** Pakoren gurasoek laguntza eskatzen dute: errugabe izanda bi hilketa leporatzen dizkiote.

**Maiatzak 18.** Epaiketa duina eskatzen dute. Gartzelatik laguntza eskatzen du presoak.

**Urriak 8.** Heriotz zigorretik ateratzeko beste pauso bat: laguntza Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren eskutik jasotzen du.

**Azaroak 17.** Filipinetako polizia ohi batek Pako errugabea dela aitortzen du.

eman direla ezagutzera, bere baimenarekin, beti ere. Egungo presidentearen barkamena eskatu ostean, bi nesken bahiketa eta hilketa bidegabera leporatu izanagatik, aspaldi egin beharrekoak hasi dira.

Gainera, joan den astean itxaropen zantzuak sortu ziren Larrañagaren auzian. Izan ere, ikerketan parte hartu zuen polizia-takota batek —egun erretiratu dago— errugabetu egin du gaztea.

## BIDEGOIAN ▶

### Gidaria behar da eguneko zentrorako

Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearen aldetik, Bidegoian eta Errezilen eguneko zentro bana jarri dute adinekoei bertan eguna pasatu ahal dezaten. Bidaia hauek egiteko, gidaria behar dute, eta bete beharreko baldintzak honakoak dira: ordutegian malgutasuna, B1 gida baimena izatea, bertakoa izatea eta euskara jakitea. Curriculum hilaren 30a baino lehen bidali behar da.

## AMEZKETA ▶

### Bariante berriko obrak jadanik hastear

Bihar izango da herrian zehar errekarren ezker aldean igaroko den errepidearen inaugurazioa, 12:30ean, Aranzasti baserrian. Ondoren, udaletxean hainbat politiko elkartuko dira proiektua azaltzeko.

## IKAZTEGIETA ▶

### XV. Kros Herrikoian Elena Huarte garaile

Emakumezkoen artean Elena Huarterk irabazi zuen igandean XV. Kros Herrikoia, 39,46ko denbora eginez. Bigarren M. Jose Arteaga eta hirugarren Maria Mendibe. Gizonezkoetan, garaile Jabier Cuadrado ordiziarra (32,05) izan zen. D. Alonso eta E. Garcia atzetik sartu ziren.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behe  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: enio@innoenio.com  
www.innoenio.com

**Alegia.** 3 logela, sukaldea eta 2 bainugela. Egoera oso ona. Berria bezala.  
**Altzo.** Etxe bifamilar ederra salgai.

Ikusteko modukoa. Bista ederrak.  
**Asteasu.** 250 m<sup>2</sup>ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!

**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

**Ibarra.** Plaza inguruan garajea salgai.

**Ibarra.** Lokal komertziala alokairuan 60 m<sup>2</sup>koa. Salmentan edo alokairuan.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 138.235 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratz eta xabolarekin. 204.345 euro.

**Tolosa.** San Esteban Auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Belate. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza altua igogailuarekin. Trasteleku ederra. 237.400 euro!

**Tolosa.** Berazubi. 2 logelako etxebizitza. Guztiz berritua.

**Tolosa.** Estreinatzeko. 234.395 euro.

**Tolosa.** Amaroz auzoan 3 logelako etxebizitza salgai. 225.380 euro.

**Tolosa.** Sputnik. Duplex altua.

**Berritua.**

**Tolosa.** Larramendi. 96 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m<sup>2</sup>ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza

berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, bi terraza eta bi lorategi.

**Behean: garajea, komuna eta bokoa.**

**Txarama inguruan.** 100 m<sup>2</sup>ko etxebizitza terrazarekin salgai.

**Egongela su bajuarekin.** Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai.

**Egongela ederra.** Ezin hobeto!

**Tolosa.** Erdialdean. Guztiz berritua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 306.517 euro.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean.

Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin.

**Garajea aukeran.**

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean.

126 m<sup>2</sup>ko etxebizitza berritua. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera,

altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120 m<sup>2</sup>ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean! 4 logeko etxebizitza ederra, garajearekin salgai.

**Tolosa.** Geltokialdea, Alberdi berrian. Garaje itxia alokairuan.

**Tolosa.** Erdialdean 253 m<sup>2</sup>ko lokala (bi solairutan banatua) salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40 m<sup>2</sup>ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m<sup>2</sup>ko pabiloi industrial alokairuan.

## GAZTELU ▶ KROSA

# Ramon Otegi gazteluarra gailendu da Irungo krosean

«Oso garrantzitsua izan da garaipena niretzat, barruan nuen harra ateratzeko beharra bainuen», azaldu du

IÑIGO TERRADILLOS

Ramon Otegi gazteluarra gailendu zen herenegun izan zen 37. Irungo Krosean, 25 minutu eta 3 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Iratxe Aranburu zarauztarra izan zen lehena helmugan.

8 kilometroko ibilbideari bost itzuli eman behar zizkion gizonezkoen maila nagusian lehiatu zirenek. Ibilbidean zehar asfalto nahiz lurra zapaldu behar zuten korrikalariek, eta azken egunotan egindako euria dela-eta lokatzarekin egin behar izan zuten topo. Hain zuzen ere, horretaz, lokatzaz baliatu zen gazteluarra; izan ere, berak azaldukoaren



Ramon Otegi. I. ETXEBESTE

arabera, «lokatzetan oso gustura ibiltzen naiz, ohituta bainago». Hala, «lehenengo bitzuletan aurkarien lana begiratu eta nituen aukerez jabetu ostean, hirugarrenetako neure burua nahiko eroso ikusi nuen», azaldu du. Erosotasun horretan zerikusia izan zuen Goierri Garaia bere taldeko Ibon Esparza bere alboan izan zuela ia bide osoan. Bikotearekin batera, Pedro Muñozek osatu zuen lasterketa burua.

Ibilbidean zehar aukerak izan bazituen ere, 400 metro geratzen zirenean egin zuen eraso gazteluarra, eta bakarrik iritsi zen helmugara, atetik, segundo batzutura, Muñoz eta Esparza zituela.

## SAILKAPENA ▶

## GIZONEZKOETAN

Izena	denbora
1. Ramon Otegi	25:03
2. Pedro Muñoz	25:07
3. Ibon Esparza	25:19

## EMAKUMEZKOETAN

1. Iratxe Aranburu	19:08
2. Onintza Zeberio	21:16
3. Maria Jesus Silvano	21:45

## Harra ateratzeko beharra

Hainbat garaipen bildu ditu gazteluarra, baina lehendabizikoz lortu du Irungo Krosarekin egitea. Gainera, berak ez zuela espero halako emaitzarik lortzea azaldu du; izan ere, pasa den urriaren 10ean Chicagonean izan zen maratoian hartu zuen parte, eta osasun arazo batzuk izan zituen; 15 egun geldirik egon beharra izan zuen. Aldi berean, «oso garrantzitsua izan da niretzat garaipena, barruan nuen harra ateratzeko beharra bainuen», gehitu du.

Denboraldiko lehen garaipena batu du, beraz, gazteluarra. Bigarrena, datorren hilean izango den Gipuzkoako Txapelketan lortu ahal izango du.

## LEABURU ▶ GIZARTEA

## Euskal giro berezia izan dute herrian EHNA Egunaren harira

Udaletxean aurrerantzean edozein egunetan egiteko aukera emango dutela erabaki dute

I. TERRADILLOS

Festa giroa izan zen nagusi igandean Leaburun burutu zen EHNA Egunean, tramitazioa egiteko aukera izateaz gain, hainbat ekitaldi antolatuta baitzituzten, denak ere euskal nortasunarekin zerikusia zutenak.

Leaburu-Txaramakoek nahiz beste herrietako jendeak zuen aukera bertan EHNA tramitatzeko, eta asko eta asko izan ziren horretaz baliatu zirenak; beste hainbat lagun dituen erabileraren inguruan zituzten zalantzak argitzeko helburuz joan ziren herriko ostatu ondora.

Txalpartarien doinuak entzutearekin batera hasi zen jendea gerturatzen herriko plazara. Hala, eguerdian, Ttontorpe pilotaleku berrituan bi-

nakako pilota partidak ikusteko aukera izan zen; batetik, Iturbe eta Peña Eguiguren eta Belokiren aurka lehiatu ziren; lehenengo bikotearen aldekoa izan zen azken emaitza, 18-5. Bigarren partida alebina mailakoa izan zen, eta Etxarrick eta Tolosak 18 eta Ibarzabalek eta Urretabizkaiek 12 amaitu zuten. Partida horien ostean txalpartariak lanean hasi ziren berriz ere, euren doinuak herrian zabalduz.

Ez da lehendabiziko aldia Udalak horrelako egun bat antolatzen duena, hirugarrenez egin dute igandekoarekin, hain zuzen ere; hemendik aurrera, ordea, atzo hartutako erabakiaren ondorioz, udaltzeko bulegoetan EHNA edozein egunetan egiteko aukera izango dute herritarrek, eta horretara animatu nahi dituzte.



Ostatuaren kanpoaldean egin zituzten tramitazioak. HITZA



Gaztekoen arteko pilota partidak jokatu zituzten pilotalekuan. HITZA

## IBARRA ▶

## Almandozera irteera antolatu du Bizi-Nahi-k

Ibarrako Bizi-Nahi jubilatua eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du Almandozera (Nafarroa) hilaren 26an. Izena eman nahi dutenek elkartearen egin ahal izango dute, 11:00etatik 13:00etara. 25 euro (bazkaria barne) ordaindu beharko dituzte.

## IBARRA ▶

## Gazteen kezken inguruko hitzaldia gaur 19:00etan

Gaztearen XII. urteurrenaren antolaturiko Kultur Astearen baitan, gaur, 19:00etan, Hirusta egitasmoaren eskutik, 14-21 urte bitarteko gazteen kezkei, nahie eta zailtasunei erantzuteko modu berririk ikasteko hitzaldia antolatu dute. Hitzaldi hau Gizakia Fundazioak sortu duen laguntzarako prebentzio-egitasmoaren baitan kokatzen da.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibaraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

# Xalto bertso sariketan lehen sailkatua Julio Soto izan da

Torrean egindako bertso saioan Elosegi 3., Elizasu 6. eta Riaño 8. atera dira; hurrengo saioa Erratzun, larunbatean



Soto lehen sailkatua kantari ari dela, atzean ezkerretik hasita, Leitza gai jartzaila, Lazkoz, Lakuntza, Beltza, Riaño, Elizasu, Salbador, Saragueta eta Elosegi, azken agurrekoan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Larunbat iluntzean egin zuten Xalto Bertso Sariketako lehen sailkapen saioa Torrean, eta Julio Soto gorritiarrek eskuratu zuen Goizuetan jokatu den finaleko saioarako zuzeneko txartela, Leitzakoan puntu gehien eskuratu zituen bertsolaria izaki.

101 punturekin Soto izan zen bertsoan lasai, itxuraz behinik behin, erraztasunez eta solte aritu zen bertsolaria. Zortziko ttikian, Oier Lakuntza eta Xabier Salbadorrekin batera hiruek egindako saioa izan zen txalotuenetakoa: bera, alfer samarra izan eta medikuak kirol egitea agindu ziona, eta Lakuntza gehiegi egiten duelako ez egiteko agindu ziona, kalean doaz, Salbador, medikua, atze-

tik entzuten zihola. Sotok ez ezik, Lakuntzak ere arrazoi dezentek bota zituen, mantsoago baina.

Bertako hiru bertsolarik ere parte hartu zuten saioan: Diego Riaño, Migel Mari Elosegi eta Unai Elizasuk. Riaño zortziko handian ez baina ttikian, Elosegirekin egokituta, saio polita egin zuten biek, eta puntuari erantzuten ere azkar ibili ziren, kotxearen gehiegizko erabileraz ariki, Elosegiri trabatu zitzaion «aurrerantzean hartu beharko/asto, mando edo ...trator» bat tarteko, akaso, «behor» izanik gogoan, entzuleen algarak eraginez.

Saioan zehar, ale politak entzuteko aukera izan zuen bertan bildu zalegoak, eta nahiz hasierako edota bukaerako agurretan, hainbat lagun izan

zizuten gogoan, hain justu saioa hasi baino une batzuk lehenago gogoan izan zuten Igor Astibia presoari «gaurko txalok zuretzat» batekin eskaintza egin zuten Riaño, edo Elizasuk agurrekoan bere neska lagunari saioa opatu...

Sailkapenari dagokionez, Sotoren ondoren, Joseba Beltzak 97,5 puntu eskuratu zituen; hirugarren izan zen Elosegi, 94,5 punturekin; Oier Lakuntzak 92,5; Aritz Saraguetak 91,5; seigarren Unai Elizasu, 91 punturekin; Eneko Lazkozek 90,5; Diego Riaño 89 puntu; eta bederatzigarren Xabier Salbador atera zen. Hurrengo sailkapen saioa Erratzun egingen dute, hilaren 25ean, 20:30ean, eta finala handik zortzira Goizuetan, bi lehendabizikoez gain, sei onenekin.

LEITZA ▶ PRESOKAK



300 bat herritarrek egin zuten manifestazioa herrian zehar. ETXERAT

## «Espetxe politika honek zigortu eta hil egiten gaitu»

Igor Astibia kartzelan urtebete daramala salatu dute larunbateko manifestazioan

J. ASTIBIA

Larunbat arratsaldean 300 lagun inguruk Leitzako kaleak zeharkatu zituzten, Igor Astibia kartzelan urtebete daramala salatzeke.

«Euskal presoak etxera», «sakabanaketa heriotz zigorra da» moduko aldarriak entzun ahal izan ziren, eta ibilaldiaren ondoren irakurritako adierazpenean ere halaxe berretsi zuten herriko plazan elkartutakoek Igor Astibia («Auzitegi Nazionalaren aginduz» bere etxetik «inpunitate osoz» eraman zutela ekarri zuten gogora, eta ondorengo inkomunikaturik egin zituen hiru egunak «senideak torturatua izateko arriskuagatik kezka» egon zirela gogorarazi zuten, «gerora baieztatu ziren torturak», adieraziz.

Herrian bertako Eneko Aizpuru ere aitatu zuten, «Aranjuezen (Espainia) lau hilabete» daramatzala zehatzuz. Eskualdeko gainerako presoak ere present izan zituzten («Ifigo, Txus, Juanjo eta Xabier ere, Espainia eta Frantziako esterminiozko espetxeetan saka-

banaturik preso» dituztela esanez.

Bide batez, hainbat daturen berri ere eman zuten: «674 preso daude egun, 4 estatutako 88 espetxetan sakabanatuta, eta ia zahetarik bat bera ere ez zuten Euskal Herriratu», eman zuten aditzera. «Hauetatik %73 lehen graduan, baldintzarik gogorrenetan, asko isolamenduan» daudela aitatu, «kasketarako, komunikaziorako eta osasunerako eskubideak urratzen zaizkiela, jipoiak eta baldintza jasangaitzak» ere salatu zituzten, «gaixotasun sendaezinak izan arren, preso dituzten Agirre eta Barandalla» eredutzat jarriz. Horren harira, «euskal presoan aurkako biolentzia bortitz» modura sailkatuta («indarrean dagoen espetxe politika, bertan behera uzteko esijentzia» egin zuten: «Sakabanaketak 19 euskal preso eta 16 senide hil ditu» adierazi eta «espetxe politika madarikatu honek presoak, senideak eta lagunak zigortu, kolpatu, gaixotu, zauritu eta hil egiten gaitu», baieztuz eta ondorioztatuz.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 22a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



## AGENDA ▶

### ANTZERKIA

**Ikaztegieta.** Giltzikaro taldearen *Elevator* antzezlan. 19:30ean, kiroldegiko gimnasioan. Kultur Astearen baitan.

### DEIALDIAK

**Anoeta.** Ipuin kontaketa, Lamiak taldearen eskutik, Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3 mailetakoen artean. Antolatzaileek puntualitatea eskatu dute.

**Ibarra.** 14-21 urte bitarteko gazteen kezkei, nahiei eta zailtasunei erantzuteko modu berriak izeneko saioa. 19:00etan, Gaztearean, Hirusta egitasmoaren eskutik. Gaztearean XII. urtemugan.

**Villabona.** Gerardo Telletearen eta Jon Mujikaren *Torres del brujo* emanaldia. 20:30ean, Gurean. Aizkardi mendi elkartearen 22. Mendi Astearen barruan.

### MUSIKA

**Tolosa.** Santa Zezilia musikariaren zaindarien eguna dela eta, Tolosako Musika Bandak kalejira egingo du Alde Zaharreko kaleetan, 20:30etik aurrera, Gorriti plazatik abiatuta.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
Tolosa. Olarrega, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

### IRRATIA

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazina: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, albisteak, oharak...; 12:00etan, Tolosako azokaren inguruko berriak, Pablo Alberdi Iankidearekin; 12:30ean, agenda; 12:40ean, Joxerramon Iruetagoiena Izeta II.a harri-jasotzaileari elkarrizketa; 13:00etan, lehiaketa eta disko eskainiak.

18:00-19:00. *Adi guri*, Anoetako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek eskaintzen duten saioa.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa*.  
21:00-22:00. *Gure arbasoak*. Arrosa Irrati Ekolizpen Zentroaren bitartez, Irulegi irratiaren egiten duten saioa.  
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

### HITZAK

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Jolasak, elizkizuna, antzerkia, tailerrak... Denetik prestatu zuten Kirikiño aisialdi taldekoek asteburuan Zaindarien Asteari hasiera emateko. HITZA

# Zaindarien Astea Hirukiden

**TOLOSA ▶** Zaindarien Asteko ospakizunei ekin diete Hirukide ikastetxean; asteburuan, Kirikiño aisialdi taldekoen txanda izan da



Bilboko, Tafallako, Gasteizko, Iruñeko eta Tolosako Eskolapioetakoak, elkarrekin, festa giroan. HITZA

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Asier Aierza.  
Gaur 6. urte. Zorionak Ariz eta ebekoan partetik.

**ZORIONAK**  
Lur eta Izaro. Dagoeneko gure gizonboak handitzen ari dira. Maite zaituztegu. Ebeekoak.

**HITZA,**  
zorion agurren tartea

Mesedez,  
argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

### ERREDAKZIOA

**Z**aindarien Asteko ospakizunak hasi ziren asteburuan Hirukide ikastetxean. Eta Kirikiño aisialdi taldeari egokitu zitzaion «ekintza bereziz josita egongo den aste luzeari ekitea». Larunbatean, hain zuzen ere, aisialdi taldeko 200 bat partaide eta haien begira-leak Hirukide Jesuitinetan elkartu ziren arratsaldean —LH 6. mailatik hasita DBH 4. mailara arte—.

Elizan, hiru zaindaria gogoratu zituzten, ospakizun baten bidez. «Ondoren, eta datorren urtean Tolosako 750. urteurrena ospatzen dela aprobetxatuz, Tolosako zenbait txoko eta herriaren historia ezagutzeko aukera eduki zuten jolas baten bidez. Jolas honetan eskertze-koa izan zen Helduak 2-ko gazteen laguntza, begirale gisa aritu baitziren. Seiak aldera denok bildu ginen berriz ere eskolako jolastokian, eta hantxe jaso genuen merienda. Arratsalde polita izan zen», azaldu dute Kirikiñoko ordezkariak.

Igandean, berriz, aisialdi taldeko koxkorrenak Tolosara gonbidatu zituzten Bilboko, Tafallako, Gasteizko eta Iruñeko Eskolapioetako 5. mailako ikasleak Kalasanz Eguna ospatzeko. Hirukide Eskolapioetan bildu ziren gazte guztiak, 250 bat neska-mutil denera. Hala, jolas, elizkizun, antzerki, abesti eta algar artean igaro zuten eguna. «Aste luze, polit honen hasiera bikaina izan da», diote. Egunero-egunero izango dute, beraz, zer egunik ikastetxean.